

Maleta egiteaz

Daukadan guztia daramat aldean.

Edo: enetasun guztia daramat nirekin.

Neukan guztia eramana daukat. Enetasuna ez zen existitzen. Edo inoren edo besteren batena zen. Zerri larruzko maleta gramofono-kutxatxo bat zen. Lohihartzeko soingainekoa aitarena zen. Kaleko soingainekoa belusezko txatalekin lepoan, aitonarena. Galtza bonbatxoak, nire osaba Edwinenak. Larruzko azpantarrak, auzoko Carp jaunarenak. Artilezko eskularru berdeak, izeko Finirenak. Enetasuna zetazko xal gorritzata ardo kolorekoa eta nezeserra besterik ez zen, azken Eguberrietako opariak.

Artean gerra zen 1945eko urtarrilean. Ikaratuta, negu gorrian joan beharko ote nuen auskalo nora errusiarrengana, edonork eman nahi zidan zerbait, besterik ezean, onuragarria litekeen zerbait.

Munduan ezerk ez zuelako laguntzen. Erremediorik gabe errusiarren zerrendan nengoelako, edonork ematen zidan zerbait eta zegokion zatiaz gogoratzen zen. Eta nik hartu egiten nuen eta nire hamazazpi urteekin begitantzen zitzaidan bidean jartze hori garaiz zetorrela. Errusiarren zerrendak ez zuen existitu behar, baina, okerreki gertatzen ez bada, are ona ere izango da niretzat.

Irten nahi nuen harri guztiek begiak zituzten hiri txikiko titaretik. Beldurra barik, baneukan ezkutuko egonezin hori. Eta kontzientzia txar bat; izan ere, zerrenda, nire etxekoak etsita zituena, niretzat egoera onargarri bat zen. Haiiek beldur ziren zerbait suertatuko ote zitzaidan atzerrian. Nik ezagutuko ez ninduen leku batera nahi nuen.

Eta puntuan zerbait suertatu zitzaidan. Debekaturiko zerbait. Bitxia, zikina, lotsagabea eta ederra izan zen. Haltzen parkeko atze-atzean gertatu zen, belar motzeko muinoaz beste aldean. Etxerako bidean parkeko erdialdera joan nintzen, jaiegunetan orkestrek jotzen zuten kiosko biribilera. Han tarte bat eman nuen eserita. Argiak fin tailaturiko zura sastatu zuen. Ikusi egin nuen zirkulu, karratu eta trapezio hutsen beldurra, erpeekiko aihen zurien bidez bilduta. Nire galbidearen marrazkia zen, eta izularriaren marrazkia nire amaren aurpegian. Kiosko horretan egina dut zin: Ez naiz berriro parke honetara itzuliko.

Zenbat eta gogoeta gehiago egin horretaz, hainbat eta azkarrago itzuli nintzen hara... bi egunen buruan. *Rendezvous*era, horrela deitzen zitzaion parkean.

Bigarren *rendezvous*era lehenengo gizonarekin berarekin joan nintzen. ENARA zuen izena. Bigarrena berriago bat zen, IZEIA zuen izena. Hirugarrenak BELARRIA. Ondoren HARIA etorri zen. Gero URRETXORIA eta TXANOA. Geroago ERBIA, KATUA, ANTXETA. Gero PERLA. Guk beste inork ez zekien zein izen zegokion zeini. Bridatu gabeko aldaketa zebilen parkean, harrapatzen utzi nintzen. Eta uda zen eta azal zuria urkietan; jasmin- eta intsusa-laharretan hazita zegoen barnera ezinezko hostotzaren horma berdea. Maitasunak bere urtaroak ditu. Udazkenak bukaera bat jartzen zion parkeari. Zura biluzten zen. *Rendezvous*ak toki batetik bestera joaten ziren gurekin Neptunoren urmaelean. Burdinazko atearen ondoan zintzilik zegoen haren ikur obala beltxargarekin. Astero topo egiten nuen ni halako bi zaharragoa zen gizonarekin. Errumaniarra zen. Ezkonduta zegoen. Ez dut esango nola zuen izena, ezta nola nuen izena ere. Denboraz kanpo iristen ginen: andre kutxazainak bere tegiko berunezko beiraztapenean, ispilu bihurturiko harrizko zoruak, erdiko zutabe biribilak, azulejoek nenufarren marrazkiekin, zur tailatuzko mailadiak ezin zuten ulertu gu adosturik egotea. Urmaelera joaten ginen beste guztiakin igeri egitera. Lehenbizi lurrunezko berogailuen ondoan topatzen ginen. Orduan, esparrua baino lehentxeago eta doi-doi ni etxera itzuli ondoren 1968ra arte, herrialdea utzi nuenean, kartzela suertatuko zitzaidan *rendezvous* bakoitzeko. Gutxienez bost urte, harrapatu banindute. Batzuk harrapatu zituzten. Zuzen pasatzen ziren parketik edo hiriko bainutik kartzelako galdeketa izugarrietara. Handik kanal ondoko zigor-ziegara. Orain jakinean nago, kanaletik ez zen atzera berriz itzultzen. Inor, hala ere, bueltan bazetorren, gorpu ibiltari bat zen. Zahartua eta behe joa, munduarekiko ezein maitazarrerako ezgauza. Eta esparru-aldian... esparruan harrapatuta, hil egingo nintzatekeen.

Bost urte esparruan eman eta gero alderrai ibili naiz egunez egun kale ardailatsuetan barrena, eta buruan entseatzen nituen esaldirik onenak nire atxiloketaren abagunerako: DELITU GORIAN ATZEMANA... erru-epai horren aurka mila aitzakia eta alibi

kontatu diot nire buruari. Ekipaje isila daramat. Horren luze eta sakon paketatu naiz isiltasunean, ezinezkoa zait inoiz paketea hitzetan zabaltzea. Soilik bestelako eran paketatzen naiz, hitz egiten dudanean.

Udako azken *rendevousean*, haltzen parketik etxerako bidea luzeago egiteko, Eraztun Handian barrena halabeharrez joana naiz Hirutasun Santuaren elizara. Halabehar horrek patua irudikatzen zuen. Ikusi egin dut geroaldia. Alboko aldarearen ondoan zutabe baten gainean santua zegoen, soingaineko nabarrean bilduta, eta soingainekoaren idun gisa ardi bat zeraman lepondoan. Lepondoko ardi hori da isiltasuna. Gauza batzuei buruz ez da hitz egiten. Baina nik badakit zertaz hitz egiten dudan, isiltasuna ahoan dihardudanean.

Nire esparru-aldiaren aurretik, bitartean eta ondoren, hogeita bost urtez beldurrak bizi izan naiz, estatuaren eta familiaren aurrean. Amiltze bikoitzaren aurrean: estatuak ni gaizkiletzat hartuta giltzapetzea eta familiak lotsaizuntzat baztertzea. Kaleetako jendetzaren barruan erakusleihen, tranbia- eta etxe-leihen, iturri eta uhasken ispiluan begiratu dut, sinesgogor, ez ote naizen gardena izango. Nire aita marrazketa irakaslea zen. Eta ni, buruan Neptunoren urmaela nuela, ostikoz bezala hartzen ninduen ikarak, AKUARELA hitza zerabilenean. Hitzak bazekien urrunegi joana nintzena. Nire amak mahaiian jarrita esaten zuen: Ez sardexkaz sastatu patata, puskakatu egiten da, hartu koilara, sardexka haragia mozteko hartzen da. Lokiak pilpiraka nituen. Nolatan hitz egiten du haragiaz, kontua patata eta sardexka izanda. Zein haragiz hitz egiten du. *Rendevousek* haragia bihurrikatzen zidaten. Neu nintzen neure lapurra, hitzek ustekabean erori eta harrapatzen ninduten.

Nire amak eta batez ere nire aitak, hirixkako aleman guztiek bezala, txirikorda ilehorien, belaunetarainoko galtzerdi zurien ederrean sinesten zuten. Hitlerren bibotearen karratu beltzean eta gugan, Transilvaniako saxoniarren, arraza ario legez. Nire isilgordea zen, bada, huts-hutsik gorputz aldetik begietsita, higuinik gorena. Errumaniar batekin arraza-lotsaizuna areagotzen zen.

Familiatik alde egin nahi nuen, ziegara joateko bazen ere. Pena ematen zidan bakarra ama nuen, ez baitzekien zein gutxi

ezagutzen nauen. Berak, alde egiten badut, maizago edukiko nau
ni burutan, nik hura baino.

Εδορτα